

Koiuntura di-da batean

2019ko urria

Aurkibidea

1. BPGaren hazkundea
 2. Lan merkatua
 3. Inflazioa
 4. Ekonomia espainiarra
 5. ELGEren aurreikuspenak
 6. Ekonomia sentimendua
- Eranskina

1. Hazkunde egonkorra bigarren hiruhilekoan.

Barne eskariak indarra galdu du, baina kanpo saldoak ekarpena hobetu du.

2. Enplegu sorrera zertxobait apaldu da EAEn.

Kontu ekonomikoek %1,7ko tasa zenbatetsi dute bigarren hiruhilekorako.

3. EAEko inflazioa bi hamarren jaitsi zen abuztuan.

Kontsumoko prezioen jaitsieraren arrazoietakoa bat argindarraren merkatzea izan zen.

4. Ekonomia espainiarra %2,0 hazi zen bigarren hiruhilekoan.

Barne eskariak eta kanpo saldoak puntu bana ekarri zioten hazkundeari.

5. ELGEk munduko hazkundearen aurreikuspenak beheratu ditu.

Merkataritza tentsioek eta ziurgabetasun politikoak ekonomia eragileen konfiantza kaltetu dute.

6. Erresuma Batuak Europako sentimendu ekonomikoa lastatu du.

Europar Batasunak baikortasunaren apaltzea erakusten du 2018ko hasieratik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza


DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

EAE-KO EKONOMIAREN AURREIKUSPENAK

Hazkunde egonkorra bigarren hiruhilekoan

Barne produktu gordina

Urte arteko aldakuntza tasa




Eustatek argitaratu dituen kontu ekonomikoek adierazten dute 2019ko bigarren hiruhilekoan EAEko ekonomiak lehen hiruhilekoan eskuratu zuen hazkunde tasa berdindu zuela eta %2,2an jarraitu zuela, urte arteko tasan neurtuta. Tasa hori aurrerapenean zenbatetsi zena baino hamarren bat txikiagoa da. Hiruhileko arteko aldakuntza %0,6an kokatu da, hark ere aurreko datua berdinduz.

Oro har, taula makroekonomikoak baieztatzen du kanpo arloaren ekarpena hutsala dela eta hiruhileko horretan hamarren positibo batera mugatzen dela. Aitzitik, barne eskariak bizitasunari eutsi zion, nahiz eta moteltze-ko joera garbia erakutsi zuen, %2,0 hazita. Portaera hori orokorra izan zen eta bai kontsumoan bai inbertsioan hauteman zen.


Azken kontsumoa



Urte arteko aldakuntza tasa






Kapital eraketa gordina

Urte arteko aldakuntza tasa



Industriaren balio erantsia
 Urte arteko aldakuntza tasa

Eraikuntzaren balio erantsia
 Urte arteko aldakuntza tasa


Analisia jarduera adarren arabera egiten denean, agerian geratzen da bigarren hiru hilekoan eraikuntzak erritmoa apaldu zuela aurreko hiru hilekoaren aldean. Halere, sektorearen hazkundea tasa gainontzekoena baino handiagoa da. Beste aldetik, industriak eta zerbitzuek hedatze arineko perfila, lehen kasuan, eta egonkortasuneko, bigarreanean, erakusten dute. Zerbitzuen banaketan, apaltze garbia hautematen da merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen adarrean, administrazio publiko, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuen bilakaera hobeak konpentsatu duena.


Zerbitzuen balio erantsia
 Urte arteko aldakuntza tasa

Merkataritza, ostalaritza eta garraioaren balio erantsia
 Urte arteko aldakuntza tasa

Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuen balio erantsia
 Urte arteko aldakuntza tasa


LAN MERKATUA

Enplegu sorrera zertxobait apaldu da EAEn

Enplegu guztiaren bilakaera


Urte arteko aldakuntza tasa



Eustatek egiten dituen kontu ekonomikoen arabera, enplegu sorrerak hazkunde erritmoa apaldu zuen bigarren hiruhilekoan, %1,7an kokatu arte, aurreko epealdian jasotako aldakuntza tasa baino hamarren bat gutxiago. Beraz, aurreko lau urteetan aldagai horrek jaso zituen %2,0aren inguruko emaitzetatik nabarmen beherago dago orain. Hain zuzen ere, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua 978.000tik gora kokatu zen, azken bost urteko denboran inoiz jaso den zenbakirik gorena baita. Bost urte horietan, krisian galdu ziren 130.000 lanpostuetatik 100.000 inguru berreskuratu dira. Enplegu sorrera ekonomiaren sektore guztietan oinarritu zen, baina haien artean eraikuntza nabarmendu zen, %3,3ko aldakuntza tasa bat eskuratuta.


Enplegua lehen arloan

Urte arteko aldakuntza tasak




Enplegua eraikuntzan

Urte arteko aldakuntza tasak



Enplegua industrian

Urte arteko aldakuntza tasa




Industriak enplegu sorrera motelena erakutsi zuen, urte arteko hazkundea %0,9an kokatuta. Hala eta guztiz ere, 2018ko hasieran hartu zuen beheranzko joera galgatzeari lortu zuen, azken hamabi hilekoetan ia 1.800 lanpostu garbi sortuz. Gehikuntza txiki horri esker, dagoeneko 208.000 lagun baino gehiago daude lanean sektore horretan, baina kopurua oso urrun dago oraindik krisiaren aurrean eskuratu ziren haieetatik.

Industriatik aldentuta, zerbitzuek beheranzko joerari jarraipena eman zioten, nahiz eta beren hazkunde tasak nabarmen altuagoak izan ziren. Hain zuzen ere, zerbitzuen tasa %1,8an kokatu zen, hots, aurreko hiruhilekoan eskuratu zuena baino bi hamarren beherago. Zenbaki absolutuetan 696.000 lagun zeuden lanean zerbitzuetan, serie historiko osoan inoiz jaso den daturik gorena baita.


Enplegua zerbitzuetan

Urte arteko aldakuntza tasa



Gizarte Segurantzako afiliazioa

Urte arteko aldakuntza tasa




Gizarte Segurantzako uztailleko eta abuztu-ko afiliazioaren datuek goranzko joera baieztatu zuten, urte arteko gehikuntza % 2,1era iritsita. Hala ere, gogoratu behar da tasa horiek zaintzaile ez profesionalengan eragina duen araudi aldaketa batek baldintzatu dituela. Izan ere, afiliatuen talde hori alde batera uzten bada, hazkunde tasa zazpi hamarren txikiagoa izango zen. Diferentzia bereziki handia da emakumeen artean, zaintzaile gehienak emakumeak direlako.

INFLAZIOA

EAEko inflazioa bi hamarren jaitsi zen abuztuan

KPI indize orokorra
Urte arteko aldakuntza tasa




Pasa den abuztuko KPI indizea %0,6an kokatu zen EAEn. Hori da azken hiru urteko igoerarik txikiena abuztu batean. Are gehiago, bi hamarrenetan jaitsi du uztaileko datua. Bi hamarrenetako jaitsiera horretan erabakigarriak izan ziren, batez ere, argindarraren merkatzea eta, neurri txikiagoan, gasaren eta erregaien prezioek izan zuten beherakada.


KPIaren banaketa
Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2017	2018	2019ko abuztua	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	2,0	1,6	0,6	0,6
Azpiko inflazioa (%81,4)	1,1	0,9	1,1	0,9
- Elikagai landuak (%13,6)	0,0	0,9	0,7	0,1
- Industria ondasunak (%24,8)	0,3	-0,1	0,5	0,1
- Zerbitzuak (%43,0)	1,7	1,5	1,7	0,7
Hondar inflazioa (%18,6)	6,5	4,6	-1,5	-0,3
- Landu gabeko janariak (%7,6)	3,7	2,9	1,2	0,1
- Energia (%11,0)	8,2	5,9	-3,3	-0,4

Azpiko inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak




Hondar inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak



Brent motako petrolio upelaren eguneko prezioa

Dolarrak



Aurreko epealdietan ez bezala, argindarra, eta ez petrolio, izan zen inflazioaren apaltzea ekarri zuen erantzule nagusia. Hori dela eta, abuztuan KPIaren tasak izan zuen jaitsieran parte hartu zuten taldeen artean, etxebizitza nabarmendu behar da, bere urte arteko tasa puntu bat eta sei hamarren murriztu zuelako, tasa %-3,4an kokatu arte, argindarraren eta gasaren merkatzeak eraginda. Beste aldetik, petrolioaren prezioak gorantz egin zuen hilekoaren erdialdean, Saudi Arabiako petrolio azpiegiturak eraso terrorista bat pairatu zuelako. Harez geroztik, behera egin zuen eta 65 dolarren azpian kokatu zen. Kontuan hartuta lehengai hori, igoera puntual hori gertatu zen arren, maila neurritsuetan kokatu zela, garraioak ere jaitsiera izan zuen aurreko hilekoaren datuaren aldean, urte arteko tasa lau hamarrenetan gutxituz, %1,7ra arte. Azkenik, hotelak, kafetegiak eta jatetxeak biltzen dituen taldeak ere urte artekoa murriztu zuen, bi hamarrenetan, %2,1etik %1,9ra, ostaturko zerbitzuen prezioek izan zuten bilakaeraren ondorioz.

KPIaren talde nagusiak

Urte arteko aldakuntza tasak. 2019ko abuztua

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	0,6	0,3	1,0
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	1,1	1,0	1,9
Edari alkoholdunak eta tabakoa	-0,3	0,6	2,8
Jantziak eta oinetakoak	0,9	0,9	1,2
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-3,4	-3,3	1,3
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,5	0,7	0,5
Osasuna	0,7	0,9	0,9
Garraioa	1,7	0,2	0,6
Komunikazioak	0,6	0,5	-2,1
Aisia eta kultura	0,3	0,1	-0,9
Hezkuntza	0,8	1,0	0,8
Jatetxeak eta hotelak	1,9	1,9	2,0
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,5	1,3	1,7


Iturria: INE eta Eurostat.

ESPAINIAKO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

Ekonomia espainiarra %2,0 hazi zen bigarren hiruhilekoan

Barne produktu gordina


Urte arteko aldakuntza tasa



INEk aurtengo bigarren hiruhilekoaren hazkunde datuak argitaratu ditu. Beraietan, Berrikusketa Estatistikoa 2019 delakoa, zenbatespeneko iturriak eta metodoak aldizka eguneratzeko beharrari erantzuten diona, kontuan hartu du. Datu horien arabera, Espainiako BPGa %2,0 hazi zen bigarren hiruhilekoan, 2017ko amaieran hasi zuen moteltzeko joera leuna berreskuratuz. Hazkunde horren osaera aurreko epealdietan bizitakoaren oso bestelakoa izan zen. Izan ere, barne eskariak eta kanpo eskariak ekarpen bera egin zioten BPGaren hazkundeari. Zehazkiago adierazita, azken kontsumoak irudi egonkorra eskaini zuen arren, inbertsioak oso behera egin zuen, barne eskaria ahulduz. Hala eta guztiz ere, esportazioen bultzadak eta inportazioen beste jaitziera batek moteltze hori konpentsatu zuten. Aurreko guztiaren ondorioz, bi eskariak puntu bana ekarri zioten BPGaren hazkundeari.


Gastua azken kontsumoan

Urte arteko aldakuntza tasak




Kapital eraketa gordina

Urte arteko aldakuntza tasak




Industriaren balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa




Eraikuntzaren balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa



Zerbitzuen balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa




Eskaintzaren ikuspegitik, sektore guztiek gehikuntza tasa positiboak eskuratu zituzten, baita industriak ere, urtebete batez etengabeko jaitsierak jaso eta gero hazkunde positiboa berreskuratu baitzuen. Eraikuntza izan zen berriro sektore dinamikoena, baina bizitasuna galdu zuen aurreko hiruhilekoaren aldean. Hala ere, hazkunde sendoa lortu zuen. Zerbitzuek, berriz, nahiko bilakaera egonkorra erakutsi zuten eta hazkunde positiboak lortu zituzten adar guztietan.

Joera bera hauteman zen lan merkatuan, non ia adar guztiek, lehen arloak izan ezik, enplegua sortu baitzuten. Hain zuzen ere, enplegua %2,5 hazi zen, lanaldi osoko 446.000 enplegu garbi sortuz.


Merkataritza, ostalaritza eta garraioaren balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa



Administrazio publiko, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuen balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa




ELGE-REN AURREIKUSPENAK

ELGEk munduko hazkundearen aurreikuspenak beheratu ditu

Munduko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



ELGEren tarteko azken aurreikuspenen arabera, munduko hazkundera %2,9an eta %3,0an kokatuko da, hurrenez hurren, 2019an eta 2020an. Perspektiba berri horiek okerragotze txikia ekarri dute pasa den maiatzean argitaratu ziren haien aldean. Espero den hazkunde ibilbideak ahultasuna eta ziurgabetasuna erakusten ditu, gehikuntza motelekin eta beheranzko arriskuak areagotzen direla.


Merkataritza tentsioek eta ziurgabetasun politikoak ekonomia eragileen konfiantza eta inbertsioa nabarmen narriatu dituzte, eta finantza merkatuetako berezko arriskuak larriagotu dira.

ELGEren aurreikuspen ekonomikoak


	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2018	2019	2020	2019	2020
Munduko ekonomia	3,6	2,9	3,0	-0,2	-0,2
AEB	2,9	2,4	2,0	-0,4	-0,3
Eurogunea	1,9	1,1	1,0	-0,1	-0,4
Alemania	1,5	0,5	0,6	-0,2	-0,6
Frantzia	1,7	1,3	1,2	0,0	-0,1
Italia	0,7	0,0	0,4	0,0	-0,2
Erresuma Batua	1,4	1,0	0,9	-0,2	-0,1
Kanada	1,9	1,5	1,6	+0,2	-0,4
Japonia	0,8	1,0	0,6	+0,3	0,0
Txina	6,6	6,1	5,7	-0,1	-0,3
Korea	2,7	2,1	2,3	-0,3	-0,2
India	6,8	5,9	6,3	-1,3	-1,1
Brasil	1,1	0,8	1,7	-0,6	-0,6

Iturria: ELGE.


AEBetako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa




Euroguneko BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Alemaniarako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa




Erresuma Batuko BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Ziurgabetasun orokorraren zati garrantzitsu bat Erresuma Batua Europar Batasunetik irteteko erabakiak eragin du, bereziki prozesu horretan akordiorik ez balego. Egoera horrek herrialdea atzeraldi batera eraman dezake 2020an eta, orobat, Europako sektoreak desantolatu. Munduko hazkundea lastatzen duen beste faktore bat ekonomia txinatarraren moteltzea eta bertako finantza merkatuaren ahultasun garrantzitsuak dira, non hazkunde apala, zor handia eta kreditua lortzeko baldintza zailak aldi berean gertatzen diren.

ELGEk ekonomia aurreratuetako banku zentraleri gomendatu die moneta politika egokitzaileri eusteko eta beren eragina areagotzeko. Haiekin batera, politika fiskal eta egiturazko politika biziagoak ezartzeko ere gomendatu du.

Txinako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: ELGE.

EKONOMIA SENTIMENDUA EUROPAN


Erresuma Batuak Europako sentimendu ekonomikoa lastatu du

Ekonomia sentimendua Europar Batasunean





Europako Batzordeak egiten duen ekonomia sentimenduaren adierazleak beste urrats bat eman du irailean 2018ko urtarrilean hasi zen igurikimenak hozteko prozesuan. Izan ere, Europar Batasunak jaso zuen datua 100,0 zen, 1990etik jaso den batez bestekoarekin bat eginez. Beraz, oraindik ez da ezkortasuneko egoera bat, neutroa baizik. Euroguneko bi herrialde nagusiek bilakaera kontrajarriak eskaini dituzte. Alde batetik, Alemaniak nabarmen okertu du bere emaitza 99,4an kokatu arte, hots, batez bestekoaren azpitik. Aitzitik, Frantzia eremu positiboan dago, 103,9 batekin. Alemaniako sektorerik ezkorrena industria da, baina zerbitzuek ere perfil negatiboa erakusten dute. Frantzian, ordea, sektore guztiek batez besteko balihoa gainditzen dute, bereziki eraikuntzak eta zerbitzuek.

Ekonomia sentimendua Alemanian





Ekonomia sentimendua Frantzian



Ekonomia sentimendua Erresuma Batuan

Adierazle horren arabera, Erresuma Batuan konfiantza amildu da. Iraileko datua (88,0) batez bestekoaren oso azpitik dago eta 2012ra itzuli behar da hori baino datu okerrago bat aurkitzeko. Eraikuntzak bakarrik erakusten du nolabaiteko baikortasuna, baina industria, zerbitzuak eta txikizkako merkataritza oso maila apaletan daude, nahiz eta oraindik 2009an jasotako minimoetatik urrun egon.

Italiak 99,9ko balioa eskuratu zuen irailan, batez besteko historikotik oso hurbil. Herrialde horretan, ezkortasuna industrian eta zerbitzuetan hautematen da, nahiz eta bi sektore horien datuak bereziki negatiboak ez diren. Aitzitik, kontsumitzaileen konfiantzak ez du kalterik izan une ekonomikoagatik eta bai txikizkako merkataritza bai eraikuntza une gozoan daude, batez besteko balioetatik nabarmen gorago.

Ekonomia sentimendua Italian**Ekonomia sentimendua Espainian**

Espainiaren datuak okerrera egin zuen abuztuko emaitzaren aldean, baina oraindik ekonomia sentimendu altuena duten herrialdeetako bat da (104,2). Hala industriak nola eraikuntzak hilabeteko emaitza okertu dute, baina batez besteko historikoaren gainean jarraitzen dute. Kontsumitzaileen konfiantza altua da oraindik eta bai txikizkako merkataritzak bai zerbitzuek aurreko hilekoetako balioen antzeko emaitzak jaso dituzte.

EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018			2019	
			II	III	IV	I	II
BPG	2,8	3,0	3,2	3,0	2,6	2,2	2,2
Familien kontsumoa	3,1	2,7	2,8	2,6	2,5	2,2	1,9
Administrazioaren kontsumoa	2,1	1,6	1,6	1,7	1,3	2,0	2,0
Kapital eraketa gordina	3,1	4,7	4,9	4,8	4,6	4,0	2,5
Barne eskaria	2,9	3,0	3,1	3,0	2,8	2,6	2,0
Esportazioak	4,8	3,0	3,0	2,1	0,7	-1,4	2,8
Inportazioak	5,0	3,0	2,8	2,2	1,1	-0,8	2,6
Lehen arloa	10,1	7,9	8,1	4,8	15,9	4,6	-0,1
Industria	2,5	2,5	3,5	2,5	0,3	0,6	0,8
Eraikuntza	1,6	4,1	3,7	5,4	6,2	4,8	2,9
Zerbitzuak	2,9	2,7	2,6	2,5	2,7	2,6	2,6
Balio erantsi gordina	2,8	2,8	3,0	2,7	2,4	2,2	2,2
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,3	4,9	5,8	5,1	3,8	2,2	1,9

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2019ko ekaina

Urte arteko aldakuntza tasak

	2019			2019	2020
	II	III	IV		
BPG	2,3	2,3	2,2	2,3	2,0
Barneko azken kontsumoa	2,2	2,0	2,1	2,1	1,8
Familien kontsumoa	2,3	2,1	2,1	2,2	1,9
Administrazioaren kontsumoa	1,8	1,8	1,9	1,9	1,7
Kapital eraketa gordina	3,9	3,7	3,7	3,9	3,7
Barne eskariaren ekarpena	2,7	2,5	2,5	2,6	2,4
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,4	-0,2	-0,3	-0,3	-0,4
Lehen arloa	-7,6	1,5	-5,3	-0,7	-7,8
Industria	1,2	1,6	1,9	1,3	1,8
Eraikuntza	4,3	3,5	3,3	4,0	2,7
Zerbitzuak	2,7	2,5	2,3	2,5	2,2
Balio erantsi gordina	2,3	2,3	2,2	2,3	2,0
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,1	2,0	1,9	2,1	1,8
Enplegua	1,8	1,7	1,4	1,7	1,3

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2019	2020		2019	2020
Confebask	2,5	—	Funcas	2,2	—
Laboral Kutxa	2,2	2,1	Hispalink (BEGaren aldakuntza)	2,2	2,0
BBVA	2,2	2,0	CEPREDE	2,1	1,9

Iturria: CEPREDE (2019ko iraila), BBVA (2019ko ekaina), Confebask (2018ko abendua), Laboral Kutxa (2019ko uztaila), Funcas (2019ko ekaina) eta Hispalink (2019ko uztaila).

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018			2019	
			II	III	IV	I	II
BPG	2,9	2,4	2,3	2,2	2,1	2,2	2,0
Kontsumo pribatua	3,0	1,8	2,1	1,6	1,2	1,1	0,6
Kontsumo publikoa	1,0	1,9	1,7	1,9	2,2	2,2	2,2
Kapital finkoaren eraketa gordina	5,9	5,3	7,9	5,3	3,5	4,8	1,0
- Aktibo finko materialak	7,0	6,2	9,5	6,3	4,0	5,8	1,0
- Eraikuntzan	5,9	6,6	7,5	6,1	5,7	4,2	2,9
- Ekipamendu ondasunetan	8,5	5,7	12,5	6,8	1,4	8,0	-2,2
- Jabetza intelektualaren produktuak	1,3	1,1	1,1	0,7	1,0	-0,1	1,1
Nazio eskaria (ekarpena)	3,0	2,6	3,1	2,5	2,0	1,9	1,0
Esportazioak	5,6	2,2	3,1	1,6	0,1	0,3	2,2
Inportazioak	6,6	3,3	6,3	2,5	-0,3	-0,4	-0,7

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2019	2020		2019	2020
AFI	2,2	1,9	IEE	2,3	1,8
Axesor	2,4	2,0	Intermoney	2,1	1,8
BBVA	2,3	1,9	Repsol	2,1	1,7
Bankia	2,2	1,8	Santander	2,2	1,7
CaixaBank	2,2	1,7	Solchaga Recio & asociados	2,2	1,8
Espainiako Merkataritza Ganbera	2,2	1,9	Batez bestekoa	2,2	1,9
Cemex	2,2	1,8	Gobernua(2019-04)	2,2	1,9
CEEM-URJC	2,3	1,9	Espainiako Bankua (2019-09)	2,0	1,7
CEPREDE-UAM	2,3	2,1	Europako Batzordea (2019-07)	2,3	1,9
CEOE	2,1	1,8	NDF (2019-07)	2,3	1,9
FUNCAS	2,2	2,0	ELGE (2019-05)	2,2	1,9
ICAE-UCM	2,2	1,9	Consensus Forecast (2019-09)	2,2	1,8

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ekonomia hazkundera

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018			2019	
			II	III	IV	I	II
AEB	2,4	2,9	3,2	3,1	2,5	2,7	2,3
Txina	6,9	6,6	6,7	6,5	6,4	6,4	6,2
Japonia	1,9	0,8	1,4	0,2	0,3	1,0	0,8
Kanada	3,0	1,9	1,8	2,0	1,6	1,4	1,6
Europar Batasuna	2,6	2,0	2,3	1,9	1,5	1,6	1,4
Eurogunea	2,5	1,9	2,3	1,7	1,2	1,3	1,2
Alemania	2,5	1,5	2,1	1,1	0,6	0,9	0,4
Frantzia	2,3	1,7	1,9	1,5	1,2	1,3	1,4
Erresuma Batua	1,8	1,4	1,4	1,6	1,4	1,8	1,2
Italia	1,7	0,9	1,0	0,5	0,0	-0,1	-0,1
Herbehereak	2,9	2,6	2,8	2,3	2,1	1,9	1,6

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2019ko iraila

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020
AEB	2,3	1,8	1,8	2,1	3,7	3,7
Japonia	1,0	0,2	0,6	0,8	2,4	2,4
Kanada	1,5	1,7	2,0	2,0	5,7	5,7
Europar Batasuna	1,3	1,3	1,5	1,6	—	—
Eurogunea	1,1	1,1	1,3	1,3	7,6	7,5
Alemania	0,5	1,0	1,4	1,5	5,0	5,0
Frantzia	1,3	1,2	1,2	1,3	8,4	8,2
Erresuma Batua	1,2	1,1	2,0	2,1	4,0	4,2
Italia	0,0	0,4	0,8	1,1	10,3	10,3
Espainia	2,2	1,8	0,9	1,2	—	—
Herbehereak	1,7	1,4	2,5	1,6	—	—

Iturria: Consensus Forecast.